NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

6569

AGINDUA, 2008ko urriaren 29koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko kideak hautatzeko hauteskundeetarako deia egiten duena.

«Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia»jatorrizko deituraren arautegia aldatu eta horren testu bategina onartzen duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2008ko ekainaren 17ko Aginduaren bidez onetsi zen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Arautegiaren 32.3 artikuluan ezartzen denez, Kontseiluko kideen karguak lau urterik behin berritu behar dira, eta lehengo kideak berriz hauta daitezke. Oraingo kontseilukide hautatuen agintaldia bukatu denez, bidezkoa da hurrengo hauteskundeak arautzea eta hauteskunde horietarako deialdia egitea.

Horren indarrez, honako hau

ERABAKI DUT:

I. KAPITULUA
ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– 1.– Agindu honen bidez, «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileko 6 kontseilukide hautatzeko prozedura ezarri eta hartarako deia egiten da. Kontseilukide horiek Jatorrizko Deituraren Arautegiaren 32. artikuluko 1. paragrafoko c) eta d) idatz-zatietan aipatutako sektoreen ordezkariak izango dira, mahats-ekoizleen eta elaboratzaileen ordezkariak, alegia.

2.– Hauteskunde-prozesurako egutegia, egun naturaletan emana, agindu honen I. eranskinean dago.

3.– Hauteskunde-egutegian finkatutako egunen bat igandea, jaieguna edo larunbata bada, haren ordez hurrengo egun balioduna erabiliko da.

2. artikulua.– «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren Hauteskunde Batzordea (JDHB) sortzen da.

3. artikulua.– 1.– Hauteskunde Batzordeak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzan (Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz, 3. solairua) izango du egoitza eta honakoek osatuta egongo da:

Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Elikagaien Kalitateko zuzendaria.

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

6569

ORDEN de 29 de octubre de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se convocan elecciones a vocales del Consejo Regulador de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia».

El artículo 32.3 del Reglamento de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia», aprobado por Orden de 17 de junio de 2008, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se modifica el Reglamento de la Denominación de origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» y se aprueba su Texto Refundido, establece que los cargos electos del Consejo Regulador serán renovados cada cuatro años, pudiendo ser reelegidos. Habiendo finalizado el mandato de los vocales electos y electas, procede convocar y regular las elecciones correspondientes.

En su virtud,

RESUELVO:

CAPÍTULO I
NORMAS GENERALES

Artículo 1.– 1.– Por la presente Orden se establece y convoca el procedimiento para la elección de las seis personas que tendrán la condición del vocal del Consejo Regulador de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia», en representación del sector productor de uva y del sector elaborador, referidos en los apartados c) y d) del párrafo 1, del artículo 32 del Reglamento.

2.– El calendario, referido a días naturales, a que deberá ajustarse el proceso electoral figura en el anexo I de esta Orden.

3.– En aquellos casos en que coincida en domingo, festivo o sábado alguna de las actuaciones fijadas en el calendario electoral, se habilitará a tal efecto el día siguiente hábil.

Artículo 2.– Se crea una Junta Electoral de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» (J.E.D.).

Artículo 3.– 1.– La composición de la Junta Electoral, cuya sede radicará en la Dirección de Calidad Alimentaria, del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación (01010.– Vitoria-Gasteiz, calle Donostia-San Sebastián n.º 1, 3.ª planta), será la siguiente:

Persona que ejercerá la presidencia: el Director o Directora de Calidad Alimentaria del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación del Gobierno Vasco.

Lehendakari-ordea: Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritzako foru diputatuak izendatuko du.

Kontseilukideak edo bokalak:

– (1) Aholkulari juridiko bat, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Elikagaien Kalitateko zuzendariak izendatuta.

– (1) Ordezkari bana, jatorrizko deituraren lurraldean kokaturiko sindikatu-erako nekazaritza-erakunde profesionalek izendatuta.

– (1) «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia» Jatorrizko Deituraren idazkaria - kudeatzailea.

– (1) Idazkari bat, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Elikagaien Kalitateko zuzendariak izendatuta.

2.– Hona hemen Hauteskunde Batzordearen eginkizunak:

a) Jatorrizko deituraren erregistroetan inskribaturiko hautesleen erroldak argitaratzea eta jendaurrean jartzea, horretarako zehaztuko diren tokietan, hain zuzen ere.

b) Aipatutako erroldei buruzko erreklamazioak lehenengo auzialdian ebaztea, eta ebazpen horien aurka aurkezten diren errekurtsoen berri ematea Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzari, zuzendaritza horrek ebazpena eman dezan.

c) Behin betiko erroldak onestea.

d) Kontseilukide izateko hautagaien aurkezpen-paperak jasotzea.

e) Hautagaiak aldarrikatzea.

f) Hauteskunde Mahaia izendatzea.

g) Bozketak zaintzea.

h) Kontseilukide hautatuak aldarrikatzea.

i) Hauteskunde-prozesu osoa bermatzea, harik eta Kontseilu Arautzaileko lehendakaria eta lehendakariordea proposatu arte.

3.– Agiriak zaintzea eta erabakiak betetzea izango da idazkariaren zeregina.

II. KAPITULUA
HAUTESLE-ERROLDAK

4. artikulua.– 1.– Jatorrizko Deituraren Kontseilu Arautzaileak prestatuko ditu hautesle-erroldak edo/eta azpi-erroldak, Jatorrizko Deituraren Arautegiko 15. artikuluan jasotako erregistroetan inskribaturik dauden pertsonekin:

A) Mahastizainen erroldan hiru (3) azpi-errolda ezarri dira:

Persona que ejercerá la vicepresidencia: será designada por la Diputada de Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia.

Personas que tendrán la condición de vocal:

– (1) Un asesor jurídico o asesora jurídica, designado o designada por la persona titular de la Dirección de Calidad Alimentaria.

– (1) Una persona representante, nombrada por cada una de las Organizaciones Profesionales Agrarias, implantadas en el ámbito territorial de la Denominación de Origen.

– (1) La persona que ejerza las funciones de secretaría-gerente de la Denominación de Origen «Bizkaiko Txakolina/Txakoli de Bizkaia/Chacolí de Bizkaia».

– (1) La persona que ejerza las funciones de la secretaria, designada por la persona titular de la Dirección de Calidad Alimentaria.

2.– Son funciones de la Junta Electoral las siguientes:

a) Publicación de los censos del electorado inscrito en los Registros de la Denominación de Origen y la exposición de los mismos en los lugares que se determinen.

b) Decidir, en primera instancia, sobre las reclamaciones en relación a dichos listados y su remisión a la Dirección de Calidad Alimentaria para su resolución, de los recursos presentados contra sus decisiones.

c) Aprobación de los listados definitivos.

d) Recepción de la presentación de las personas candidatas a vocales.

e) Proclamación de candidatos y candidatas.

f) Designación de la Mesa Electoral.

g) Vigilancia de las votaciones.

h) Proclamación de vocales electos y electas.

i) Garantizar todo el proceso electoral hasta la propuesta de las personas que ejerzan las funciones de la presidencia y la vicepresidencia del Consejo Regulador.

3.– La persona que ejerza las funciones de la secretaría se encargará de la custodia de la documentación y de la ejecución de los acuerdos.

CAPÍTULO II
CENSOS Y SU EXPOSICIÓN

Artículo 4.– 1.– Los censos y/o subcensos electorales serán elaborados por el Consejo Regulador de la Denominación de Origen a partir de las personas inscritas en los registros establecidos en el artículo 15 de su Reglamento de acuerdo con lo que sigue:

A) En el Censo de Viticultores se establecerán (3) tres subcensos:

V-1.– Mahastizainen azpierrolda, 1,5 hektareatik gorako azalera 2008ko uztailaren 31n inskribatuta; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

V-2.– Mahastizainen azpierrolda, 1,5 hektareako edo hortik gorako eta 8 hektareatik beherako azalera 2008ko uztailaren 31n inskribatuta; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

V-3.– Mahastizainen azpierrolda, 8 hektareatik gorako azalera 2008ko uztailaren 31n inskribatuta; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

B) Upelategien erroldan hiru (3) azpi-errolda ezarri dira:

B-1.– 2008ko uztailaren 31n muga-eguna harturik 20.000 litrotik behera elaboratu duten upeltegiak; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

B-2.– 2008ko uztailaren 31n muga-eguna harturik 20.000 litro edo gehiago eta 96.000 litro baino gutxiago elaboratu duten upeltegiak; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

B-3.– 2008ko uztailaren 31n muga-eguna harturik 96.000 litro edo gehiago elaboratu duten upeltegiak; pertsona bat hautatuko da kontseilukide gisa.

2.– Ekoizleen eta elaboratzaileen errolda bakoitzean hiru pertsona izango dira kontseilu-kide, eta dagozkien azpierroldetan kontseilu-kide bat azpierrolda bakoitzeko. Horregatik, II. eranskinean (boto-papera), titular eta ordezko baten izendapena baino ez da jasotzen.

5. artikulua.– Hautesleen erroldetan agertu ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Agindu hau indarrean jartzen denean, Kontseilu Arautzailearen erregistroetan inskribaturik egon behar da.

b) Ezin egon daiteke eskubide zibilez baliatzeko desgaiturik.

Kontseilu Arautzailearen erregistroetan azaltzen den pertsona bera izango da eskubidearen jabea.

c) Egunean izatea Jatorrizko Deiturari dagokionez ezarritako kuotak eta gainerako betebeharrak.

6. artikulua.– Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzak ezarritako ereduaren arabera egingo dira hautesle-erroldak. Errolda horietan, ordena alfabetikoaren arabera azalduko dira hautesleak udalerri bakoitzean.

7. artikulua.– 1.– Kontseilua Arautzaileak Hauteskunde Batzordeari bidaliko dizkio hautesle-erroldak, jendaurrean jartzeko behar den beste ale bidali ere. Hauteskunde Batzordeak, bestalde, bidezkotzat jotzen dituen egiaztapen guztiak egin ondoren, bete beharreko eginbideak beteko ditu hautesle-erroldak bideratzeko, betiere, Batzordeko idazkariaren izenpearekin eta batzordeburuaren oniritziarekin. Batzordeak Kontseilu

V-1: Subcenso viticultores con una superficie inscrita inferior a 1,5 hectáreas al 31 de julio de 2008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

V-2: Subcenso viticultores con una superficie inscrita igual o superior a 1,5 hectáreas e inferior a 8 hectáreas al 31 de julio de 2.008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

V-3: Subcenso viticultores con una superficie inscrita igual o superior a 8 hectáreas al 31 de julio de 2008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

B) En el Censo de Bodegas se establecerán (3) tres subcensos:

B-1.– Bodegas que hayan elaborado menos de 20.000 litros al 31 de julio de 2008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

B-2.– Bodegas que hayan elaborado igual o superior a 20.000 litros y menos de 96.000 litros al 31 de julio de 2008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

B-3.– Bodegas que hayan elaborador igual o superior a 96.000 litros al 31 de julio de 2008, que elegirá una persona que tendrá la condición de vocal.

2.– El número de personas que tendrán la condición de vocal correspondientes a cada uno de los censos productor y elaborador son tres, y en sus correspondientes subcensos uno en cada uno, por ello, en el anexo II (papeleta de votación), solamente se contiene la designación a favor de un titular y un suplente.

Artículo 5.– Para figurar en los censos será imprescindible lo siguiente:

a) Estar inscrito o inscrita en los Registros correspondientes del Consejo Regulador a la entrada en vigor de la presente Orden.

b) No estar inhabilitado o inhabilitada en el uso de los derechos civiles.

Se entiende como titular del derecho, la misma persona que figura en los Registros del Consejo Regulador.

c) Estar al día en el pago de las cuotas y resto de aportaciones establecidas respecto a la Denominación de Origen.

Artículo 6.– Los censos se confeccionarán en impresos según modelo establecido por la Dirección de Calidad Alimentaria, debiendo figurar en los mismos las personas titulares por orden alfabético dentro de cada municipio.

Artículo 7.– 1.– La Junta Electoral, una vez recibidos del Consejo Regulador los censos correspondientes, en número de ejemplares necesarios para su exposición, y previas las comprobaciones que estime oportunas, diligenciará todos ellos con las firmas de la persona que ejerza las funciones de secretaría de Junta y el conforme de la persona que ejerza su presidencia, ordenando su exposición en la Sede del Consejo Regulador, Oficinas

Arautzailearen egoitzan, Bizkaiko nekazaritzako eskualde-bulegoetan eta Elikagaien Kalitateko Zuzendaritzan jarriko ditu erroldak jendaurrean.

Erroldei buruzko erreklamazioak eta errekurtsoak egiteko, I. eranskineko egutegiari lotu beharra dago.

2.– Aldi berean ekoizleen (Mahastien Erregistroa) eta elaboratzaileen (Ardogintzan eta Botilatzen diharduten Upeltegien Erregistroa) hautesle-erroldetan inskribatuta dauden titularrek bi erroldetarako botoa eman ahal izango dute.

III. KAPITULUA
KONTSEILU ARAUTZAILEKO KIDEA IZATEKO HAUTAGAIEN AURKEZPENA: HAUTAGAIAK ALDARRIKATZEKO MODUA

8. artikulua.– 1.– Errolda edo/eta azpi-errolda bakoitzeko kontseilukideak aukeratzeko prozesuan, errolda eta azpierrolda bakoitzean daudenak izango dira hautesle eta hautagai.

2.– Kontseilukideak eta ordezkoak hautatzeko hautagai-zerrendak irekiak izango dira errolda / azpierrolda bakoitzerako.

3.– Talde bakoitza ordezkatu behar duten kontseilukideak aukeratzeko hautagai-zerrendak Hauteskunde Batzordeari aurkeztu behar zaizkio. Horretarako, aldarrikapen-eskabidea aurkeztu behar da I. eranskinean zehaztutako epean.

4.– Inork, ez norberaren izenean ez besteren baten izenean, ezingo du kidetza bat baino gehiago izan Kontseiluan.

9. artikulua.– 1.– Nekazaritzako erakundeek, lanbide-elkarteek eta independenteek aurkeztu ahal izango dituzte hautagai-zerrendak; baina, beti ere, dena delako errolda edo azpierroldako hautesleen ehuneko hogeiren (% 20) abala beharko dute.

2.– Ezein erakundek edo lanbide-elkartek ezin izango du hautagai-zerrenda bat baino gehiago aurkeztu errolda edo azpierrolda bakoitzeko. Hautagaien zerrendak aurkeztean, ezin izango da erabili alderdi politikoen ikur edo bereizgarririk.

10. artikulua.– 1.– Baldin eta nekazaritzako lanbide-elkarte bat beste handiago batean sarturik badago, ezin izango du hautagai-zerrendarik aurkeztu, handiago horrek aurkeztuz gero.

Nekazaritzako lanbide-elkarteek hautagai-zerrendarik aurkeztuz gero, haien estatutuen arabera ordezkari direnek izenpetu beharko dituzte zerrendok. Gainerako hautagai-zerrenden kasuan, sustatzaileek aurkeztu beharko dituzte.

Zerrendak hautesleek aurkeztuz gero, izenpetzaileen nortasuna egiaztatuko zaio Hauteskunde Batzordeari, eta, orduan, proposatutakoak eta atxikimendua adierazi dutenak azaldu beharreko erroldetan azaltzen ote diren egiaztatuko du Batzordeak.

Comarcales Agrarias del TH de Bizkaia, y en la Dirección de Calidad Alimentaria.

Las reclamaciones y recursos a los censos se ajustarán al calendario del anexo I.

2.– Los personas titulares que figuren inscritas simultáneamente en los censos del sector productor (registro de viñas) y del elaborador (bodegas de elaboración y embotellado) podrán votar por ambos censos.

CAPÍTULO III
PRESENTACIÓN DE PERSONAS CANDIDATAS A TENER LA CONDICIÓN DE VOCAL DEL CONSEJO REGULADOR: FORMA Y PROCLAMACIÓN DE PERSONAS CANDIDATAS

Artículo 8.– 1.– Para la elección de las personas que tengan la condición de vocal representativas de cada censo/subcenso, serán electores y electoras elegibles quienes figuren en cada uno de los censos/subcensos.

2.– Las candidaturas para la elección de vocales y suplentes serán abiertas para cada censo/subcenso.

3.– Las candidaturas para la elección de vocales que hayan de representar a cada uno de los grupos, se presentarán mediante solicitud de proclamación ante la Junta Electoral en el plazo señalado en el anexo I.

4.– Ninguna persona, ya a título personal o en representación de otra, podrá ocupar más de una vocalía en el Consejo.

Artículo 9.– 1.– Podrán proponer candidaturas las Organizaciones Agrarias, Asociaciones Profesionales y las personas independientes, siempre que cada uno de los casos sean avaladas por el 20% del número total que constituyan las personas electoras del censo o subcenso de que se trate.

2.– Ninguna Organización Profesional Agraria podrá presentar más de una lista de personas candidatas para el mismo censo o subcenso. En la presentación de estas candidaturas no podrán utilizarse símbolos o identificaciones propios de los partidos políticos.

Artículo 10.– 1.– Ninguna Organización Profesional Agraria integrada en otra superior podrá presentar lista de personas candidatas si lo hace la de mayor ámbito.

Las listas que presenten las organizaciones profesionales agrarias deberán ir suscritas por quienes ostenten su representación de acuerdo con sus estatutos. Las demás candidaturas serán presentadas por sus promotores.

La identidad de las personas firmantes, en el supuesto de presentación por las personas electoras, se acreditará ante la Junta Electoral, que comprobará si las propuestas y adheridas figuran en el censo correspondiente.

2.– Hauteskunde Batzordeari aurkeztuko zaizkio zerrendok, honako datu hauek argi azalduko direlarik:

a) Proposamena egiten duen erakundearen edo elkartearen izena eta hautagai-zerrendarena.

b) Sartutako hautagaien izen-abizenak.

c) Zerrenda bakoitzeko hautagaien eta ordezkoen hurrenkera.

Hauteskunde Batzordeko idazkariak eginbide-agiria beteko du, hautagai-zerrenda zein egunetan eta ordutan aurkeztu den adieraziko duena.

3.– Hautagaiek hautagarri izateko baldintzak bete behar dituzte, eta, horrez gain, zerrenda onartzen dutelako adierazpena izenpetu behar dute, adierazpen hori zerrendarekin batera aurkeztu behar baita.

4.– Hauteskunde Batzordeak hautagai-zerrendak onartzeko, ezinbestekoa da zerrenda bakoitzak ordezkari bat izendatzea, jakinarazpenak berari bidaltzeko. Ordezkari horrek ez du zertan hautagai izan. Zerrenda aurkezten denean, ordezkariaren helbidea adieraziko zaio Hauteskunde Batzordeko Idazkaritzari, aurrerantzean jakinarazpenak ordezkari horri bidaltzeko.

11. artikulua.– Agindu honen I. eranskinean jasotakoaren arabera, hautagaiak aurkezteko epea bukatzen denean, hautagaien zerrendak irmoak izango dira, eta Hauteskunde Batzordeak hala aldarrikatuko ditu. Batzordeak, halaber, bere arioz edo erreklamazioren batek eraginda, bazter utziko ditu hautagarritasun-baldintzak hausten dituzten hautagai-zerrendak edota aurkezteko nahiz aldarrikatzeko eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituztenak.

12. artikulua.– 1.– Hautagai-zerrendak aldarrikatutakoan, Hauteskunde Batzordeak jendaurrean jarriko ditu, 7.1. artikuluan hautesle-erroldak ikusgai jartzeko adierazitako tokietan, hain zuzen ere.

2.– Hautagai-zerrendak aldarrikatu eta jendaurrean jarri ondoren, haren aurkako errekurtsoak aurkeztu ahal izango zaizkio Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Saileko Elikagai Politika eta Industriako Sailburuordetzari, beti ere I. eranskineko epeen arabera.

3.– Erroldaren edo azpierroldaren batean hautagai-zerrenda bakarra aurkezten bada, Hauteskunde Batzordeak -aurreko paragrafoan aipatutako errekurtsoak ebatzitakoan, halakorik egonez gero- zerrenda horretako hautagaiak aldarrikatuko ditu kide eta ordezko, eta kide postuak esleituko dizkie, bozketarik egin gabe. Eta hori bera kasu guztietan gertatuz gero, hauteskunde-prozesuak aurrera egingo du: aldarrikatutako hautagaiak karguez jabetuko dira eta lehendakaria eta lehendakariordea hautatuko dituzte zehazten den egunean.

2.– Las listas se presentarán ante la Junta Electoral, expresando claramente los datos siguientes:

a) La denominación de la entidad o agrupación proponente y de la candidatura.

b) El nombre y apellidos de las personas candidatas incluidas.

c) El orden de colocación de las personas candidatas y sus suplentes, dentro de cada lista.

La persona que ejerza las funciones de secretaria de la Junta Electoral extenderá diligencia haciendo constar la fecha y hora de presentación.

3.– Las listas deberán presentarse acompañadas de declaraciones de aceptación de las candidaturas suscritas por las personas candidatas propuestas, que deberán reunir las condiciones de elegibilidad.

4.– Será requisito indispensable para la admisión de las candidaturas por la Junta Electoral el nombramiento para cada lista de una persona representante, a los efectos de recibir notificaciones, la cual podrá ser o no candidata. El domicilio de la persona representante, a efectos de notificaciones, se hará constar ante la persona que ejerza las funciones de secretaria de la Junta en el momento de la presentación de la lista.

Artículo 11.– Finalizado el plazo de presentación de candidaturas con arreglo a lo previsto en el anexo I, las candidaturas serán firmes de hecho, quedando proclamadas por la Junta Electoral, la cual excluirá de oficio o a través de denuncia las que incurran en causa de inelegibilidad o incumplan los requisitos exigidos para su presentación y proclamación.

Artículo 12.– 1.– Una vez proclamadas las candidaturas, la Junta Electoral acordará su exposición en los lugares establecidos en el artículo 7.1 para la exposición de los censos.

2.– Hecha la proclamación y exposición de las candidaturas, podrán presentarse recursos a la misma ante la Viceconsejería de Política e Industria Alimentaria del Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, con arreglo a los plazos establecidos en el anexo I.

3.– Cuando únicamente se presente una candidatura a alguno de los censos o subcensos, la Junta Electoral, una vez resueltos, en su caso, los recursos previstos en el apartado anterior, proclamará como vocales y suplentes a las personas candidatas correspondientes, atribuyendo las vocalías a que concurrieran, sin necesidad de celebrar votación. Si tal circunstancia se produjera en todos los casos, el proceso electoral continuará con la toma de posesión de las personas proclamadas y la elección de la persona que ejerza la Presidencia y Vicepresidencia en la fecha que se determine.

IV. KAPITULUA
HAUTESKUNDE MAHAIAREN ERAKETA, BOZKETA ETA BOTO-ZENBAKETA

13. artikulua.– 1.– Hauteskunde Mahaiaren zereginak hauek dira: bozketaren buru jardutea, botoak zenbatzea eta bozketaren garbitasuna zaintzea.

2.– Hauteskunde Batzordeak izendatutako mahaiburu batek eta bi mahaikidek osatuko dute Hauteskunde Mahaia. Agindu honetako I. eranskinean azaltzen den egunean, zozketaren bidez hautatuko dira karguok hautesleen artetik. Jardunbide bera erabiliz, mahaiburuaren eta mahaikideen bina ordezko izendatuko dira.

Kontseilukide izateko hautagaiak eta haien ordezkoak ezin izan daitezke Hauteskunde Mahaiko kide.

3.– Hautagai-zerrendek ikuskatzaileak izendatu ahal izango dituzte (Hauteskunde Batzordeari jakinaraziko diote), bozketa eta boto-zenbaketa ikus ditzaten eta Hauteskunde Mahaian parte har dezaten.

14. artikulua.– Hauteskunde Mahaiko kide izatea egokituz gero, derrigorrez bete beharko da eginkizuna. Izendapena egin ondoren, interesatuei jakinaraziko zaie, eta horiek, izendapena ez onartzeko arrazoirik izanez gero, delako arrazoi hori azaldu eta agiri bidez frogatu behar izango dute I. eranskinean ezarritako epearen barruan. Hauteskunde Batzordeak, horrelakoetan, ebazpena emango du, eta ezingo zaio errekurtsorik jarri.

Mahaian egotea galarazten duen arrazoia geroago sortzen bada, berehala ohartaraziko da, eta beti Mahaia eratu baino lehenago. Horrelako kasuetan ere, Batzordeak berehala emango du ebazpena.

Mahaia osatzeko behar diren kide guztiak ager ez badaitez, agertutako kideren batek hala jakinaraziko dio Hauteskunde Batzordeari; batzordeak, jarraian, hauteskundeak eta boto-zenbaketa ondo egiteko pertsona egokiak izendatu ahal izango ditu askatasunez.

15. artikulua.– Bozketa-egunean, mahaiburua eta mahaikideak, bai eta ordezkoak ere, 09:00etan elkartuko dira Kontseilu Arautzailearen egoitzan, bozketa egingo den tokian, alegia.

Kontseiluburua ez bada azaltzen, lehenengo ordezkoak ordezkatuko du eta, hori ere ez balego, bigarren ordezkoak. Bigarren ordezkoa ere azaldu ez badadi, lehenengo mahaikideak eta bigarrenak, hurrenez hurren. Mahaiburuaren tokian diharduen mahaikidearen eta bertaratzen ez direnen tokiak haien ordezkoek beteko dituzte.

Hauteskunde Mahaia osatzeko ezinbestekoa izango da mahaiburua eta bi mahaikide egotea.

CAPÍTULO IV
CONSTITUCIÓN DE LA MESA ELECTORAL, VOTACIÓN Y ESCRUTINIO

Artículo 13.– 1.– Corresponde a la Mesa Electoral presidir la votación, realizar el escrutinio y velar por la pureza del sufragio.

2.– La Mesa Electoral estará integrada por la persona que ejerza la presidencia y dos personas adjuntas, designadas por la Junta Electoral mediante sorteo entre las persona electoras, realizado en la fecha indicada en el anexo I. Se designarán también dos suplentes, por el mismo procedimiento, para cada una de las personas integrantes de la mesa.

Las personas candidatas a vocales, y sus suplentes, no podrán formar parte de la Mesa Electoral.

3.– Las candidaturas podrán designar ante la Junta Electoral personas que ejerzan la función de intervención para que presencien las votaciones y el escrutinio, formando parte de la Mesa Electoral, que deberán estar incluidos en el censo electoral y no ser personas candidatas.

Artículo 14.– La condición de miembro de la Mesa Electoral tiene carácter obligatorio. Una vez realizada la designación será comunicada a las personas interesadas para que, en el plazo establecido en el anexo I, puedan alegar excusas, documentalmente justificadas, que impidan su aceptación. La Junta Electoral resolverá sin posibilidad de recurso.

Si la causa impeditiva sobreviniera después, el aviso se realizará de inmediato y siempre antes de la hora de constitución de la mesa. En estos casos la Junta resolverá, igualmente, de inmediato.

Si los componentes de la Mesa necesarios para su constitución no comparecieran, quién de ellos lo haga lo pondrá en conocimiento de la Junta Electoral, que podrá designar libremente a las personas más idóneas para garantizar el buen orden de las elecciones y el escrutinio.

Artículo 15.– El día de la votación, quien ejerza la presidencia y las personas adjuntas de la Mesa Electoral, así como sus suplentes, se reunirán a las 09:00 horas en la Sede del Consejo Regulador, lugar designado para la votación.

Si el Presiente o la Presidenta no acudiera, será sustituido o sustituida por su primera persona suplente y, de falta éste, por la segunda suplente. Si tampoco acudiera ésta, la primera persona adjunta y la segunda, por este orden. Las personas adjuntas que ocuparen la presidencia o que no acudieren, serán sustituidas por su suplente.

En ningún caso podrá constituirse la Mesa Electoral sin la presencia de la persona que ejerza la Presidencia y dos personas adjuntas.

Bozketa-eguneko 09:30ean, mahaiburuak mahaiaren eraketako akta egingo du, eta berak, mahaikideek eta, egotekotan, ikuskatzaileek izenpetuko dute. Aktan ondoko hauek zehaztu behar dira: batetik, zein pertsonek osatu duten mahaia kide moduan, eta, bestetik, ikuskatzailerik baldin badago, haien izenen zerrenda, ikuskatzaile bakoitzak ordezkatzen duen hautagai-zerrenda adierazita.

Mahaiburuak, bozketa-tokiaren barruan, agindu ahalmen osoa izango du ordena zaintzeko, hautesleen askatasuna bermatzeko eta legea begiratzen dela ziurtatzeko.

16. artikulua.– 1.– Hauteskunde Mahaiak bete eta Hauteskunde Batzordeari bidali behar dizkion agiriak hauek dira:

– Mahaiaren eraketako akta.

– Ikuskatzaileen zerrenda.

– Boto-zenbaketaren akta.

2.– Zerrenden ordezkariek, hautagai-zerrendetako kideek edo mahaiko ikuskatzaileek eskatuz gero, Hauteskunde Mahaiak boto-zenbaketaren aktaren ziurtagiriak egingo ditu.

17. artikulua.– Hauteskunde Batzordeak boto-paperak eta gutun-azalak emango dizkio Hauteskunde Mahaiari, mahaiburuak izenpetutako jaso-agiriaren truke. Hautagai-zerrenden ordezkariei ere emango zaizkie, errolda bakoitzean inskribatutako hautesle-kopuruaren heinean, eman ere.

18. artikulua.– Mahaiaren eraketako akta egindakoan, 10:00etan hasiko da bozketa eta ordutegi honetan burutuko da: 10:00etatik 14:00ak arte, eta 15:00etatik 20:00ak arte.

Ezinbesteko arrazoia beharko da bozketa ez hasteko, eta hasita badago, bertan behera uzteko; horren erantzulea mahaiburua izango da. Mahaiburuak, idazki arrazoituaren bidez, horri buruzko ebazpena emango du. Idazki hori berehala bidaliko zaio Hauteskunde Batzordeari, azaldutako arrazoiak azter ditzan eta, bidezkoa bada, kontuak eska ditzan. Aipatutako idazkiaren kopia mahaiburuaren esku geratuko da.

Bozketa bertan behera geratuz gero, ordura arte emandako botoak ez dira kontuan hartuko, ez eta zenbatuko ere. Mahaiburuak hautestontzietako boto-paperak suntsitzeko aginduko du, eta horrela jasoko da aurreko paragrafoan aipaturiko idazkian.

19. artikulua.– Botoa emateko eskubidea egiaztatzeko, beharrezkoa da hauteslea erroldako zerrenda ziurtatuan inskribaturik egon dadin eta bere nortasuna agiriaren edo pasaportearen bidez froga dezan.

20. artikulua.– 1.– Ez bozketa-tokian, ez inguruetan, ezin izango da inolako propagandarik egin ezelango hautagai-zerrendaren alde.

A las 09:30 horas quién ejerza la Presidencia extenderá el acta de constitución de la Mesa Electoral, que firmará junto con las personas adjuntas y las interventoras, si hubiere. El acta contendrá, necesariamente, las personas que constituyen la Mesa Electoral y la relación nominal de personas interventoras, si hubiere, con indicación de la candidatura que representan.

La persona que ejerza la Presidencia de la Mesa tendrá, dentro del local en que se celebre la votación, autoridad plena para conservar el orden, asegurar la libertad de las personas electoras y mantener la observancia de la ley.

Artículo 16.– 1.– La documentación a cumplimentar por la Mesa y a remitir a la Junta Electoral es la siguiente:

– Acta de constitución de la mesa.

– Relación de las personas que ejerzan la función de intervención.

– Acta de escrutinio.

2.– La Mesa Electoral expedirá certificaciones del acta de escrutinio a demanda de las personas representantes de las listas, miembros de las candidaturas o de las personas interventoras de la Mesa.

Artículo 17.– Las papeletas y sobres serán facilitados por la Junta Electoral a la Mesa, contra recibo firmado por quién ejerza la Presidencia. Igualmente les serán entregados a las personas representantes de las candidaturas, en número proporcional al de personas electoras inscritas en los censos correspondientes.

Artículo 18.– Extendida el acta de constitución de la mesa, la votación se iniciará a las 10:00 horas durante los siguientes períodos: de 10:00 horas hasta las 14:00 horas, y de las 15,00 horas hasta las 20:00 horas.

Sólo por causa de fuerza mayor podrá no iniciarse o suspenderse, una vez comenzado el acto de votación, siempre bajo la responsabilidad de quién ejerza la Presidencia de la mesa, que resolverá al respecto en escrito razonado, enviándolo inmediatamente a la Junta Electoral para que ésta pueda comprobar la certeza de los motivos y declare o exija las responsabilidades a que hubiera lugar. Copia del escrito quedará en poder de la Presidencia.

En caso de suspensión de la votación, no se tendrán en cuenta los votos emitidos ni se procederá a su escrutinio, ordenando la Presidencia la destrucción de las papeletas depositadas en las urnas, consignando este extremo en el escrito a que se refiere el párrafo anterior.

Artículo 19.– El derecho a votar se acreditará por la inscripción de la persona electora en las listas certificadas del censo y por la demostración de su identidad mediante el documento nacional de identidad o pasaporte.

Artículo 20.– 1.– Ni en el local electoral ni en las inmediaciones podrá hacerse propaganda de ningún género a favor de candidatura alguna.

